

Kooperatibetan 54.000 pertsona ari dira lanean; Euskal AEko enpleguaren % 5,9 da

Gipuzkoari enplegu kooperatibistaren % 50 baino gehiago dagokio

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1.856 enpresa kooperatibo daude 2.741 establezimendutan banatuta, eta guztizkoaren % 1,6 dira, Eustaten datuen arabera. Enpresa horiek 54.000 pertsona baino gehiagori ematen diete enplegua; alegia, Euskal AEko guztizko enpleguaren % 5,9 dagokie. Gainera, 2021ean, 8.000 milioi euro baino gehiagoko salmenta garbiak izan dituzte.

Lurraldeen arabera, establezimenduen banaketan, Bizkaiari % 43,4 dagokio, Gipuzkoari % 42,4 eta Arabari % 14,2. Gipuzkoako pisua nabarmentzen da, berriz, enpleguaren terminoetan, eta guztizkoaren % 53,9 dagokio; ondoren, Bizkaiari % 36,6, eta Arabari % 9,5.

Sektoreen arabera, establezimendu kopuruari dagokionez, *Merkataritza eta Konponketa* sektorea nabarmentzen da, guztizkoaren % 18,6rekin, ondoren *Manufaktura-industria* % 12,2rekin eta *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak*, % 11,8rekin.

Euskal AEko kooperatibetan establezimenduak eta enplegatutako pertsonak, jarduera-adarraren (A21) arabera, sexuari jarraiki. 2022/01/01

	Establezimenduak	Pertsona enpleguak	Gizonezkoak (%)	Emakumezkoak (%)
Guztira	2.741	54.196	52,1	47,9
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	36	231	72,7	27,3
C. Manufaktura industria	335	19.620	77,0	23,0
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	6	30	43,3	56,7
E. Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	8	113	61,9	38,1
F. Eraikuntza	322	1.904	92,3	7,7
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza: ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	511	8.600	23,2	76,8
H. Garraioa eta biltegiak	88	1.331	84,1	15,9
I. Ostalaritza	94	2.663	12,9	87,1
J. Informazioa eta komunikazioak	96	798	60,9	39,1
K. Finantza jarduerak eta aseguru-eraketak	269	1.290	47,3	52,7
L. Higiezin jarduerak	14	25	60,0	40,0
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	324	3.889	52,8	47,2
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	67	498	62,0	38,0
P. Hezkuntza	301	8.789	29,6	70,4
Q. Osasun eta gizarte zerbitzu-eraketak	170	4.002	34,5	65,5
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	60	209	56,0	44,0
S. Beste zerbitzu batzuk	40	204	57,4	42,6

Data 2023ko Ekainaren 30a

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Hala ere, enplegu kopuruari dagokionez, *Manufaktura-industria* da, ia 20.000 enplegurekin, sektorerik esanguratsuen, enplegu kooperatiboaren % 36,2rekin. Era berean, *Hezkuntza*, *Merkataritza eta Konponketarekin* batera, eginkizun esanguratsua du, eta enpleguaren % 16,2 eta % 15,9 dagokie, hurrenez hurren.

Sexuaren arabera, Euskal AEko kooperatibetan enplegua duten pertsonen % 52,1 gizonak izan dira eta % 47,9, emakumeak, establezimendu guztien batezbestekoa baino ehuneko 3,4 puntu gehiago. Sektore feminizatuenak *Ostalaritza, Merkataritza eta Konponketa, Hezkuntza eta Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak* dira (% 87,1, % 76,8, %70,4 eta % 65,5, hurrenez hurren). Enplegua nagusiki gizonena da *Eraikuntza* (% 92,3) eta *Garraioa eta biltegiatzea* (% 84,1) sektoreetan.

Kooperatibek presentzia esanguratsua dute Euskal AEko zenbait udalerrian. 10 udalerrri garrantzitsuenak, elkarlaneko enpleguaren terminoetan, honako hauek dira: Arrasate, Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Oñati, Donostia, Aretxabaleta, Elorrio, Hernani, Bergara eta Irun.

10 udalerrri horiei establezimendu kooperatiboan % 46,5 dagokie, eta enplegu osoaren % 49,3. Enplegua kontuan hartuta, Arrasate nabarmentzen da, enpleguaren % 10,9 baitagokio eta establezimenduen % 3. Bilbori, bestalde, establezimenduen % 16 dagokio eta enpleguaren % 10,9.

Establezimenduak eta kooperatibetan enplegatutako eta pertsonak, Euskal AEn enplegu kooperatibista handiena duten 10 udalerrietan. 2022/01/01

	Establezimenduak	Pertsona enplegatutak
Euskal AEko guztizkoa	2.741	54.196
Arrasate/Mondragon	81	5.905
Bilbao	439	4.360
Vitoria-Gasteiz	248	3.721
Oñati	37	3.310
Donostia / San Sebastian	251	2.777
Aretxabaleta	24	1.585
Elorrio	15	1.459
Hernani	43	1.365
Bergara	26	1.197
Irun	110	1.029

Data 2023ko Ekainaren 30a

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrrenda

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62